



MARKINA-XEMEINGO UDALA
(BIZKAIA)

PRENTSAURREKOA

Euskal Herria Espainiar eta Frantziar estatuak ukatzen duten herria da, gure eskubideak zapalduak dira indarrez inposatutako legeen bitartez.

Horren adibidea da uda aurretik Markina-Xemeingo Udalak jaso zuen agindua: **Espainiako bandera jarri behar dela horrela agintzen duelako Espainiako Konstituzioak**. Hori egin ezean alkatea inabilitatuko lukete.

Bilduk eta Aralarrek ekintza hori salatu nahi dugu:

- Markina-Xemeingo herritarren gehiengoaren kontrako agindua delako.
- Markina-Xemeindarrok euskaldunak sentitzen garelako eta gurea ikurrina delako.
- Espainiako bandera inposizioaren seinale delako.

Herritar denon kontrako eraso izanik, Markina-Xemeingo hiru alderdi politikoon arteko **adostasuna** garrantzitsua izango litzateke honi aurre egiteko. Gu horretan ahalegindu arren, **PNV ez du honen beharrik ikusten**.

Bilduk eta Aralarrek **bide judizialetik** eraman dugu auzia, gure eskubideen defentsa bide horretatik egiten saiatzeko. Hala ere, berriro etorri da bandera arrotza jartzeko agindua Bizkaiko administrazioarekiko auzien 5. zenbakiko epaitegitik, euren erabakia berretsiz.

Ondorioz, bide guzti-guztiak agortuta, Markina-Xemeingo Udala derrigortuta egongo da Espainiako bandera udaletxeko balkoian ipintzera. Argi laga nahi dugularik, **gure borondatearen kontrako ekintza bat dela eta ez dugula sekula bandera hori geuretzat hartuko**.

Markina-Xemeinen, 2012ko abenduaren 3an